

*Ezkiio-Itzasoko Henri Aldizkaria*

II. Aldia - 40 zenbakia  
2003. urteko martxoa

# NEGY GORRIA A YRTENGOA



**ezkiio**

## “Euskal Herria” irratitari laguntza

«Euskal Herria» irratitari laguntza. Euskal Herria irratia Iruñako Irrati euskalduna dugu. Ziur gaude zuetako askok ez duzuela ezagutuko, baina esan beharra dago irratia hau geroz eta arrakasta handiagoa ari dela lortzen.

Irrati honen programazioaren barne, mendiari buruz egiten den saioa dugu. Gai honi buruz ari garenean, ezinezkoa da aterpeak alde batera uztea. Ildo honetatik jarraituz, Irrati hau Ezkio-Itsasoko Udalarekin harremanetan jarri da eta Ezkioko aterpearen publizitatea egitearen truke diru-laguntza eskatu du.



Eskaria aztertu ondoren, Udalak aho batez erabaki du diru-kopuru bat ematea, eta modu honetan gure herria eta bere aterpea Nafarroan ere ezagutu ditzaten aukera aprobetxatzea.

## Ludoteka irekita

Otsailaren 8an hasi eta datorren apirilaren erdialdera arte Ezkio-Itsasoko hiru urtetik gorako haurrek jolaserako eta entretenimendurako plana daukate Santa Lutziako Kultur Etxean.

Azken urte hauetan egin den bezala, negu-udaberriko larunbatetan herriko haurrek izango dute zer egin eta non egon.

Lan hau bideratzeko, Udalak lau pertsona kontratatu ditu (Alaitz Juantorena, Batirtze Gabilondo, Itziar Etxezarreta eta Ruth Idiakez).

Helburua ez da jolas egitea bakarrik, baizik eta gune ezberdinak haurrek hartu-emanak izateko aukera izatea. Herriak eskolarik ez izatea eragozpen larria da haurrak elkarrekin erlazioa izateko, beraz haurrentzako ekintzak antolatzeak beraiek elkartzeko du helburu nagusienetakoa.

Antolaketa-lanetan Udala eta Yartu Kultur Elkarteak eskutik ibili dira eta izena eman duten haurrei buruz, 35 izan direla esan behar.



## Eup! 40.

### ALE HONETAKO KOLABORATZAILE ETA PARTEHARTZAILEAK:

XABIER AKIZU  
ZUHAITZ AKIZU  
MIREN AZPIAZU  
JOXE ETXEBERRIA  
JOSEBA ETXEZARRETA  
BEÑAT IDIAKEZ  
XIMON IDIAKEZ  
MIREN ITURRALDE  
IÑAKI MENDIGUREN  
PILARE MUJICA  
JON OSINALDE  
RICARDO SAN VICENTE  
AITOR ZALDUA  
JONE URAIN

LEGE GORDAILUA SS-288/93  
ISSN • 1133 - 1941

Konposaketa eta inprimaketa  
Gertu inprimategia, OÑATI

### AHTren aurka

Otsailaren hasieran Abiadura Handiko Trenaren (AHT) aurkako manifestazioa burutu zen Tolosan. Bertan izan ziren hainbat udal-erri eta kolektibo, denak ere helburu bereekin: proiektu erraldoi honen aurrean desadostasuna agertu eta ahal den neurrian geldiaraztea. Bertan izan ziren Ezkio-Itsasoko hainbat biztanle aipaturiko taldeekin batera herriaren desadostasuna agertzen.

### Negu gorria

**Negu gorria.** Aurtengo neguan ez dugu inolako ur faltarik sumatzen. Azkenaldi honetan izan ditugun euri-jasek eta elurrek hainbat arazo sortu dituzte gure udalerrian. Alde batetik, edozein tokitan azaldu dira luiziak, besteak beste, Ezkio-ko Ama Birjinaren inguruko zelaian. Honen ondorioz azkenaldi honetan toki horretan egin diren hainbat lanek kalte nabarmenak izan dituzte. Bestalde, hainbat baserriren inguruetan ere kalteak sortu dituzte. Elurrari buruz beste hainbeste esan daiteke, eta kasu honetan elurra kentzeko Udalak duen pala jo eta su ibili da bideak garbitu nahirik. Dena den, borondate ona ugari izan dugu eta denon artean gai izan gara eguraldi gaiztoari aurre egiteko.

### Ume txokoa

Itsasoko ostatuaren azpian dagoen lokal batean, beharrezkoak ziren berri-tze-lanak amaitu ondoren jadanik prest dugu ume-txokoa.

Gune hau herriko haurrak elkartzeko asmoarekin antolatu da eta bertan haurrek gazte-gaztetatik elkar ezagutzeko aukera paregabea izango dute.

Lan honen helburua, ahal den neurrian, elkar ezagutu eta herria eginez joatea izan da.

**Eup!**ek ez du bere gain hartzen  
bertan adierazitako esanen eta  
iritzien erantzunkizunik.



EZKIO-ITSASOKO Udalaren  
diru laguntza jasotzen du.

## 2002. Gabon Eskea

Joan zen Gabon-egunean 65en bat lagun ibili ziren herrian Gabonetako giroa eta mezua zabaltzen, goizeko 9etatik arratsaldeko 4ak arte. Eta beren diru-kontuen berri eman nahi diote herri osoari: Lehendik 323,3€ zituzten. Bildu, berriz, 1.050,2€ bildu zituzten, eta gastatu (txo-ferrak + ogitartekoak) 155,50€. Beraz, une honetan **1.218€** gelditzen zaizkie. Denok ulertzeko moduan esanda: 202.658 pezeta.

## Herriko presoak

Sarri, baina bereziki urte-bukaeran, oroitu izan gara herriko presoiez. Aurreko zenbakian, ordea, ez genuen aipamenik egin, eta urteko lehenengo honetan bidali nahi diegu besarkada batekin gure elkartasuna. Jakinda ere ez daudela batere leku onean ondo bizitzeko, ahal duten neurrian, urterik onena izan dezatela opa diegu bihotzez. Idatzi nahi dienarentzat, hona hemen helbideak: **Mercedes Galdos Arsuaga** C.P. Topas (Módulo mujeres) Carretera Nacional 660. 47.799 Salamanca, eta **Gonzalo Rodríguez Cordero** C.P. Teixeira Carretera Parada 15310 Teixeira Curtis A Corunha

## Antzerkia

**Antzerkia.** Adi! Martxoaren 8an, «**Bi jango ditut!**» antzerkia emango da herrian eta herri osoarentzat, eta bereziki emakumeen ohoretan. Antzezle edo aktoreak ia-ia profesionalak, ia-ia eskarmenturik handienakoen parekoak, ia-ia munduan zehar lotsarik gabe ibiltzeko modukoak... baina, aizu!, Ezkio-ltsasokoak, bertakoak!!! Familia baten gorabeheratxoak kontatuko dira... eta barre-algarak ziurtatuta omen daude! Xehetasun gehiago etxeetara bidaliko da, eta, ondo pasa nahi baduzu, ez huts egin!



### H e r i o t z a k

Angel Idiakez Zabalo 2002/12/28 Gurutz-ondo Etxea

### J a i o t z a k

Ane Hurtado Garmendia 2003/02/03

Jon Hurtado Garmendia 2003/02/03

Santa Lutzia, Etxeberrialde

**eup!**

Udaletxean jasotako  
Artzai arrazko  
txakurkumeak

oparitzen dira,

Telefona 679-445508.

Joxemari.

# Pilar Garmendia:

## itsasoar bat munduan zehar

■ Elkarrizketatzailea: Jone Urain

Pilar Itsasokoa dugu, Ostatuan luzez egon ziren Karmen eta Inaxioren alaba. Aspalditxoan herritik kanpo dabilkigu munduan zehar, baina tarteka etxera ere itzultzen da... eta EUPek berarekin solasaldi luzea egiteko aukera izan zuen Gabonetako oportretan.

**EUP: Noiz joan zinen herritik kanpora?**

Pilar: COU bukatu ondoren, Frantziara joan nintzen au pair bezala; gero urte baterako Londresera, hara ere au pair. Handik itzuli ondoren, bi urte pasatu nituen Zuzendaritzako Idazkaritza ikasten, eta ikasten ari nintzen bitartean, ingeleseko eskolak eman nituen. Ikasketak bukatu ondoren, akademian segitu nuen lanean. Hori 85 eta 86an izan zen; orduan lanegoera oso gaizki zegoen, eta kontraturik gabe nengoenez, alde egitea erabaki nuen. Beraz, 1986an Alemaniara joan nintzen.

**EUP: Lehenengo aldiz irten zinean, ba al zenekien ingelesez?**

Pilar: Lehenengo aldiz Frantziara joan nintzenean, eskolan eta institutuan ikasitako frantsesa besterik ez nekien, eta hori ez zen beste mundukoa. Ingalaterrara joan nintzenean, ez nekien ingelesik eta Alemaniara joan nintzenean ere ez nekien alemanez. Alemanian Kiel-en atzerritarrentzako Unibertsitatera joaten nintzen goizero lau orduz, eta gero etxean neuk bakarrik egunkaria hartu eta landu egiten nuen. Senarra etxeratutakoan, egunean zehar zer egin nuen galdetzen zidan, eta nik kontatzen niona zuzendu egiten zidan. Lehenengo hilabete-pare bat ingelesez hitz egin genuen, baina gero erabat alemanez hasi ginen.



Ikasketak hasterako Alemanian azterketa bat gainditu behar izaten da, eta nik sei hilabete pasa eta gero gainditu nuen azterketa hori. Batzuek urte-pare bat behar izaten dute; nik gutxienez 6 ordu ematen nituen egunean alemana ikasten.

### **EUP: Azkar ikasi zenuen!**

Pilar: Azkar ez, asko! Sei hilabete horretara bakarrik eman nituen, alemana ikastera, eta hala ere esan behar da oso zaila dela, idazteko batez ere.

1992an Hizkuntzalaritza bukatu nuen; berehala izan nuen lanpostu bat, ikerketa-proiektuak ere egin baintuen ikasle-garaian. 1997an doktoretza bukatu ondoren, «Javier Barco» Unibertsitatean hasi nintzen lanean, baina urtebete pasa ondoren, lana utzi nuen nire semea Ulrich jaio zelako 1999an. Gero nire senarra Egiptora bidali zuten, eta ni ere berarekin Egiptora joan nintzen. Bi urtez bizi izan ginien Kairon.

### **EUP: Zer moduzko esperientzia Kairon?**

Pilar: Oso aberatsa, oso gogorra, beste kultura bat da hura. Batzuetan argi, telefono edo urik gabe gelditzen ginen; galdetuz gero noiz etorriko zen ura, beti erantzun berdina izaten zen: «Ba, Jainkoak nahi duenean!». Argi-indarra eta telefonoa ez dira hain garrantzitsuak, baina kanpoan 45° daudenean, ura bai!

Egiptok zeukan gauzarik politena bere monumentu historikoak ziren.

### **EUP: Eta aprobetxatu al zenuen «mirari» haiek ikusteko?**

Adibidez, piramideak egunero ikusten nituen, haietatik bost minutura bizi nintzen eta enkarguak egiteko beti piramideen aurretik pasa behar izaten bainuen. Lehenengotan zirrargarria zen, baina gero, ba, ltxutzurrira joatea bezala: hantxe zeuden eta kito! Arte aldetik ez dakit munduan parekorik izango den. Piramideen alboan egotea ikaragarria da. Pentsatzen duzu: «Nola demonio egin ote zituzten piramide hauek?». Harri bakoitzak 2 tona pisatzen ditu, eta milaka daude bata bestearen gainean jarrita, eta eraikuntza horiek bezala beste batzuk. Harrigarria da orain dela mila urte horrelako obelisko, piramide eta forma perfektuak egitea! Gero, piramide hartatik irten eta orain egindako etxe bat ikusten duzu eta aldea ikaragarria da; orain

egindako etxeak eskasak baino eskasagoak dira.

Bestalde, han kontraste handia dago, aberatsak oso aberatsak dira eta pobreak oso pobreak; biztanleen erdiak analfabetoak... Eta pobreen artean aberatsak Rolls Royce-tan paseatzen dira txoferrarekin, andereak Parisen egindako kapelekin...! Eta behartsuen etxeek ez dute leihorik ere, zuloak bakarrik; zoruan ez dute ezer, lurra bakarrik, ur korronterik ere ez, kanalera joaten dira ontziak garbitzera... Zaborra ere Nilora botatzen dute, eta dena bakterioz beteta dago; itsu asko dago Egipton. Lehen Niloren gorabeherak aprobetxatuz, nola edo hala dena desagertzen zen, baina orain dena bertan gelditzen da.

### **EUP: Eta bi urte pasa ondoren, berriro Alemaniara.**

Pilar: Nire tesiaren zuzendariak «hizkuntza anitzeko zentroa» du, eta han urtebete pasa dut ikertzaile-lanetan. Orain, irailaz geroztik, Ingalaterran, Bristoleko Unibertsitatean ari naiz lanean, eskolak eman eta ikerketa-lana egiten.

### **EUP: Alemanian bizi eta Ingalaterran lan egin: nola bateratzen dituzu biak?**

Pilar: Igandean joaten naiz Bristolera, han 10 egun igaro eta gero Alemanian beste 3. Dagoeneko ohitu naiz.

### **EUP: Eta zer moduzko bizimodua Alemanian? Guk alemanak buruz oso koadratuak imajinatzen ditugu: horrelakoak al dira?**

Pilar: Agian batzuen kasuan horrela izango da, baina horrek bere alde onak ere baditu: zuk, biztanle bezala, eskubide asko dituzu eta normalean alemanek ez dute inongo kezkarik erakunde edo instituzio baten aurkako prozesu bat hasteko, bai baitakite beren eskubidea dela. Gainera, insti-

tuzio guztiek izaten dute «iradokizun buzoi» bat, eta zuk kexaren bat baldin baduzu, buzoian utzi eta seguru egon erantzungo dizutela.

Alemanak ez dira gure aldean hain desberdinak; haien jokaera da legeak baldin badaude, legeak errespetatzeko direla. Nik ez nuen izan egokitu eta moldatzeko arazo handirik.

### **EUP: Erraz onartzen al dute kanpoko jendea?**

Pilar: Lehen errazago; orain arazoak sortzen hasi dira, batez ere, atzerritar batzuek gauza batzuk onartzen ez dituztelako. Alemaniara joaten dira eta pentsatzen dute beren hizkuntza gorde behar dutela. Oso bidezkoa iruditzen zait, baina asko eta asko ez daude prest alemana ikasteko, eta horrek ondorio latzak dakartza; zaharrek ez badute ikasi nahi, ba, tira, ez zaio inportatza, baina askotan umeek, 6 urterekin eskolara joaten direnean, ez dute alemanez jakiten, eta hori arazo oso handia da; letrak ikasi aurretik lehenengo hizkuntza ikasi behar dute, eta honek arazo handiak ekarri ditu eta ekarriko ditu, batzuek ez baitute hori onartzen: «nik neurea gorde behar dut», pentsatzen dute. Eta hori ondo dago, baina neure gogoz joaten banaiz beste herrialde batera bizitzera, gutxienez hango hizkuntza ikasi behar dut; ez da beharrezkoa han bezala jantztea eta hango janariak jatea, baina hizkuntza oinarrizko zerbituak; zuk gizarte batean integratu nahi baduzu, hizkuntza ikasi behar duzu. Hau izan liteke arrazoi bat atzerritarrek gaizki ikusiak izateko.

Eta Pilarrek beste gauza asko ere esan zizkigun, baina ezin dena hona ekarri. Dena den, EUPetik biziki eskertzen diogu eskaini zigun denbora... eta onena opa diogu Ezkio-Itsasok munduan zehar duen enbaxadore honi. Ez deza la bere jaioterria ahaztu! Auf Wiedersehen, bis bald! (Edo agur, ikusi arte, laster arte).

**ALTZIBAR**  
**lorategia**

GABIRIA  
Tel. 943 88 26 80

Haziak  
Bizitegiak  
Lorazaintzarako lurra  
Produktu Fitosanitarioak  
Lore eta Landare naturalak

# MEDIKUAREN KONTSULTA

## Loa

■ Ricardo San Vicente

• Bizitzan zehar, adinaren arabera, nola aldatzen da loaren beharra? Loaren ezaugarriak eta beharra ez dira berdinak edadetuen eta gazteen artean. Helduek 7-8 orduko loa behar dute eta hirugarren adinekoek 6-7 ordurekin nahikoa dute hurrengo egunean ongi ibiltzeko. Loaren ezaugarriak ere ezberdinak dira adinaren arabera. Edadetuen loa arinagoa izaten da eta ia ez dute lo sakonik egiten. Esan daiteke loaren kalitatea txarragoa dela.

• Eta adin bereko jendea hartuta, denok ordu-kopuru berdintsua lo egin behar dugu, ala bakoitza desberdina da? Jendearen arteko ezberdintasunak arlo guztietan bila daitezke, baina orokorrean esan daiteke kalitatezko loa izateko 7-8 ordukoa izan behar duela. Zergatik? Gauean zehar loaren zikloak 4-5 direlako eta ziklo bakoitzak 90-110 minutu irauten duelako. Edadetuengan lo sakoneko faseak oso gutxi dira edo ia batere ez, eta loaren iraupena txikiagoa da.

• Lo egiteko, ordurik onenak? Dударik gabe, gaua da lo egiteko garairik onena. Kalitatezko loa egiteko, inguruan zenbat eta estimulu gutxiago, hobe. Iluntasuna, hotsik gabeko eremua eta lasaitasuna ezinbesteko osagarriak dira ondo lo egiteko.

• Zer da loaren kalitatea? Arestian aipatu dudan bezala, loaren ziklo guztiak betetzen dituen izan

go da kalitatezko loa. Eta ziklo hauek lo sakoneko faseak izan behar dituzte ezinbestean lo pizgarria egiteko.

• Ondo lo egiteko aholku edo gomendioak. Esan beharrik ez dago nekatuta oheratzen bagara, errazago hartzen dugula lo. Beraz, ibiltzea edo ariketa fisikoren bat egitea egunean zehar, komenigarria eta osasuntsua izateaz aparte, lagungarri gertatuko zaigu lo egiteko garaian.

• Komeni da, baita ere, ordu berean oheratu eta jaikitzea. Era honetan gure gorputza dinamika jakin batera eta loaren ordutegi honetara errazago ohitzen da.

• Lo hartzeko arazorik badaukagu, ez egin egundoko ahaleginak lo egiten saiatuz. Hobe dugu, jaiki eta lasaigarri izan daitekeen zerbait egin: irakurri, telebista ikusi eta abar, loak hartu arte.

• Ez oheratu gosetuta. Oheratu baino lehenago jakiren bat hartzeak (baso bat esne epel, esate baterako) jende askori laguntzen dio lasai lo hartzen.

• Eta ez ahaztu, logelaren tenperaturak freskoa eta atsegina izan behar duela. Muturreko tenperaturak loa eragozten dute.



• Loaren inguruko arazo edo gaitasun nagusiak. Eta horien tratamenduak. Arazorik handiena, dudarrik gabe, isomnioa edo loezina da. Nik uste dut denok izan dugula inoiz lo egin ezina. Gehien bat buruan kezka bat jira eta buelta dabilkigunean. Insomnio-mota hau izaten da errazena sendatzen, epe motzeko insomnioa delako. Ariketa lasaigarri batzuk egin edo hipnotikoren bat epe motzean hartuz gero, egun batzuetan pasatuko zaigu. Beste gauza bat da, ordea, insomnio kronikoa. Honek zio edo motibo asko izan ditzake, konplexuagoa da, eta zoritxarrez ugariena. Kasu honetan, gaixoak pastillak eskatzen ditu lo hartu ezinaz kezka nabarmena ematen diolako. Kezkagarriena pastilla hauekiko sortu daitekeen mendokotasuna da. Honek, gaixoak lo hartu nahi badu, pastilla horiek kontsumitzera eramango du. Beraz pastillekin hasi aurretik beti saiatu behar da lehen emandako aholkuekin, batez ere ariketa fisikoren bat eginez.

# Ezkio-Itsason ere Eskola?

## ■ Ximon Idiakez

Gure herriak lehen auzo bakoitzean zuen eskola. Batzuk ondo gogoratuko zarete izan zenituzten maisu eta maistrekin, ezta?

Gazteagoek, berriz, ez duzue herrian eskolarik ezagutu; izan ere, hogeita hamar urte igaro dira Ezkio-Itsason eskolak kendu zituztenetik.

Lerro hauen bidez eskola herrian bertan izateak duen garrantzia azpimarratu nahi nuke, bai haurrentzat, bai gurasoentzat eta, nola ez, herri osoarentzat.

Herri txikietako eskola txikiek ikasle eta irakasle gutxi baina ikasteko gogo handia izaten dute. Orain eskola txikietako ikasle diren horien gurasoek eta aiton-amonek ezagututako eskola hark aurrera egin du eta oinarrian orduko ezaugarri berdintsuak dituzte. Gehienek bi edo hiru gela baino ez dituzte izaten eta adin askotako ikasleek gela berean ikasten dute.

Eskola oso zerbitzu garrantzitsua da zerbitzu urriak dituzten herri txikietan; umeek herriarekiko loturak indartzen dituzte eta komunitatean kide garrantzitsuak direla sentitzen dute, eskolak herriko bizitzan parte hartzen baitu.

Bestalde, kanpotik etorritakoak bertakotzeko lana errazten du, umeak elkarrekin harremanetan jartzen ditu, gurasoak beste gurasoekin harremanetan, etab.

Irakasleek ez ezik, gurasoek ere badute zer esanik, eskola txikien inguruan. Oso garrantzitsua da haurra bizi den herriko eskolara joatea, sustraiak herrian bertan botatzea.

Ikasle-taldea familiaren antzekoa izan ohi da eta ikustekoa da ikasle helduenek txikiekin hartzen dituzten ardurak. Bestalde, ikasle eta irakasleen arteko harremana estua da. Ikasleak gelan hasi baino askoz lehenagotik ezagutzen du irakaslea eta haren familia, eta baita alderantziz ere.

Bi urteko haur batek eskolan hasi baino lehen ezagunak ditu eskolako gainontzeko ume guztiak.

Eskolan bertan laguntza handia jasotzen da eta urte asko dira eskola txikiak elkartuta zenbait proiektu aurrera eramaten ari direla.

Garai batean pentsatzen zen hobe zela taldeko guztiak adin berekoak izatea. Gaur egun, zenbait pedagogo eta ikertzailek baieztatzen dute aniztasunetik onura besterik ez datorrela.

Eskola txikiak ikasteko gune izateaz gain, aisialdirako leku ere badira, aldi berean zabalik egoten baitira haurrek bertan jolas egin edo liburuak truka ditzaten.

Haurtzaroa bizitzako etapa garrantzitsua da eta harreman naturalak herrian bertan izatea, herrian sustraitzea, herri horrentzat bizia da. Harreman sarea zabaltzeko aukera faltarik ez dute izango.



Ikastea eta aurrera jarraitzea da eskola txikien helburua. Izan ere, herri txikiek aurrera egingo badute, ezinbestekoa da bertako haurrak han garatzea. Horretarako bide bat eskola herrian izatea da.

Esan beharrik ez dago garai batetik hona aurrerapen handiak eman direla, eta eskola txikietan ere ordenagailuek hartu dute lekua. Zenbaitek pentsa dezake eskola handia dela garrantzia eta kalitatea duena, baina dudarik ez dago eskola txikietan ere kalitatea bermatuta dagoela; izan ere, beren txikian handiak dira.

Herri txikientzat eskola bertan izatea kalitatea da, gero eskola hori bultzatu, hobetu.... egin beharko dugu denon artean.

**ESKOLA TXIKIAK BIZIRIK  
HERRI TXIKIAK BIZIRIK.**

Paregabeko aukera dugu Ezkio-Itsason berriro ere eskola izan dezagun; beraz, guztiok anima gaitzen eta bultza dezagun.

**EZKIO-ITSASON ERE ESKOLA?  
BAI, HORIXE!**

**Bai horixe!!!**

# P A S O

## ■ Beñat Idiakez eta Zuhaitz Akizu

Gazteoi askotan leporatu zaigu pasibotasuna, bai gertuko egoera sozio-politikoan, bai munduko pobrezia edo gatazketan. Ez omen digu ezerk axola, gure bizitzan bakarrik zentratzen omen gara, ez omen diogu beste ezeri jaramonik egiten... eta gehiegitan egia izaten da.

Gure bizitza eskola (eta piper) dinamika, etxean dena eginda aurkitzea, telebista, bideojoko, Internet eta lagunekin parrantan ibiltzea da kasu askotan, eta egoera honetan gaudela bururatu ere ez zaigu egiten okerrago, edo hobeto esanda, desberdin bizi direnez arduratzea, oso garrantzitsua edo larria izanagatik ere haien egoera. Beraz, pasotismoaz gain, egoismoa.

Iraganean arakaturaz gero, gazteek izan zituzten beste hainbat jarrera topa ditzakegu. Adibidez, hippyen garaian mugimendu bizi, koloretsu eta dinamiko bat planteatzen zen kapitalismoari alternatibak bilatzeko asmoz. Mugimendu horrek arrakastarik ez edukitzean gazteek beste ideologia bat garatu zuten, ezkortasuna, fatalismoa, dena galdua zegoenaren pentsaera, punk musikarekin identifikatutako mugimendu iluna... kontrakulturaren ajea zen.

Gaur egun “informazioaren garaian” bizi garelarik, gazteok inoiz baino ezjakinagoak gara: zertarako jakin? Gure ingurukoa ezagututa nahikoa dugu! Honela, benetan triste den fenomeno sozial bat, hedadura mundiala duena, aurkezten zaigu.

Baina nor da fenomeno honen arduraduna? Gurasoak? Seme-alabak? Denok. Bakoitzak du bere erantzukizuna arazo honetan; batzuek hezi egin behar dute, besteek ikasi, beste batzuek aldiz erakundearen inplikatu. Beraz, elkarri errua botatzea alferrikakoa eta kaltegarria ere bada.

Ondorioz, esan genezake bakoitzak gizartean duen zeregina ikusi, eta dagokiona egin behar duela, hainbeste predikatzen den «heziketa kritikoa» gazteei emateko. Honela ikasiko dugu gizarteari akatsak bilatzeaz gain, alternatibak planteatzen, akatsen aurrean ez ikusiarena egin beharrean.

Azkenik, hau gazteen txokoa izanik, herri guztiko gazteei (asko ez izan arren) esan nahi genieke mugi daitezela, informatu daitezela eta antola daitezela, etorkizuna denona da eta.

## GERRARIK EZ!



# Zuhaitz eta zuhaixkak

■ Xabi Akizu (“Baserria bizirik” taldekoa)

Gaur liburu baten berri emango dugu. Hiru arrazoi ditugu horretarako:

1.- Goimenek Udalaren bidez bidaliko duelako baserri bakoitzera.

2.- Baserrian galtzeko zorian dagoen aberastasun baten berri ematen duelako.

3.- Aberastasun hau indartzeko ahaleginetan laguntza batzuk jartzeko asmotan ari delako Goimen.

Liburuaren izenburua: «Zuhaitz eta zuhaixkak baserri-eremuan» eta zehatzago oraindik: «Landare-hesien onurak eta erabilpenak».

Liburuan azaltzen zaigu baserri-tarrak nolako garrantzia eman dien landare-hesiei mendeetan zehar: itxiturak egiteko, mugak bereizteko, malkarreko bideei eusteko, erreka-bazterrak gogortzeko, luiziak eragozteko, haizeetatik babesteko, ganaduaren janaritarako...

Zuhaitz eta landare hauek — hodiekin batera — eusten zioten lurrari; ez dut esango luizirik izaten ez zenik, baina ez oraingoak bezalakorik! Erreparatu besterik ez dago aurtengoei; ia ez da baserri bat geratu luizirik izan gabe, eta bat baino gehiago izan da etxerako bidea bera ere moztuta ikusi duena.

Baserri-tarrari dagokio bere zelai eta lurrei eustea, baina ez litzateke bidezkoa ere denon onerako izango diren lan hauek bere gain bakarrik uztea.

Landare-hesi hauek erosi, landatu eta zaintze-lanetan ere bidezkoa litzateke laguntza berezi bat izatea, eta horretan dihardu Goimenek. Laguntza hauek bideratzen diren bitartean, patxadan irakur dezakegu



liburua, gogoratuz non eta nola landa daitezkeen, zein diren mota egokienak gure beharretarako, baita landareak geuk ugaldtu nahi baditugu, nola egin dezakegun ere.

Horretarako, lehenengo orrietan aurkituko ditugu informazio eta aholku orokorrak eta ondoren 33

landare-moten fitxak daude, bakoitza bere ezaugarriekin, eta bertan zehazten dira horien ugalketa, erabilpena eta zainketa-lanak.

Ea, bada, denon artean animatzen garen hain garrantzitsuak diren landare-hesi hauen berreskurapen eta zainketan.

## SARIA!

EUPen aurreko zenbakian proposatzen genuen «Sagar-zukuaren» proiektuak Goimen-en 1. saria jaso du (1000€ ideiatatik eta 3000€ proiektua gauzatzeko).

Argazkian Haritzizabalgo Marilu eta Erraztioko Agustin saria jasotzen.



# Mendizaletasuna saritua

Euskal Herriko Mendi Federazioak abenduaren 13an eta otsailaren 15ean egin ditu zenbait mendi-jarduera saritzeko ekitaldiak.

Lehena, Tolosako Kultur Etxean izan zen, eta beste batzuen artean, Koke Lasak bere taldearekin 2002ko udan eginiko Karakorum-Xinkiang-Changtok espedizioa izan zen saritua. Proiektuaren orijinaltasunagatik eta erakutsitako konpromisoarengatik jaso zuen aitortpen hau. Gogoan izan espedizio honek, inoiz esploratu gabeko lekuetatik barrena, oraindik igo gabeko zazpi mila metroko mendia egin nahi izan zuela.

Bestea, orain gutxi Gasteizen izan zen eta Iraupen Luzeko Ibilaldi gehien egin dituen saritu zen: Juanjo Aranburu. Guztira 15 ibilalditan parte hartu zuen 2002. urtean, denboraldi barruan, ia astero, 700 kilometro eta 30.000 metroko desnibelak gaindituz. Ibilaldi hauek 40ren bat kilometro izaten dituzte eta zortzi bat orduz ibili behar izaten da.

Iraupen Luzeko Ibilaldiek jarraitzaile ugari dituzte eta, horren lekuko, Juanjo Aranbururen atzetik eta beste 25 mendizaleren



artean, Urteagako Lurdes Mujika eta bere senarra, Andoni Gomez, ere sarituak izan zirela aipatu behar da. Zorionik beroenak guztioi!!!

## Antzerkia

# Bi jañgo ditut, bi!

### Antzezleak:

Amona martxosa: Maixabel Arakistain

Aitona gorra: Miren Iturralde

Ama feminista: Arantxa Insausti

Aita matxista: Iñaki Mendiguren

Seme musu-beroa: Aritz Zumarraga

Semetxo propineroa: Beñat Lardizabal

Alaba festazalea: Leire Martin

Izeba pertxenta: Nekane Ugarteburu

Auzoko begiluzea: Lurdes Albistur

Bezero petrala: Pilare Mujika

Apaiza gonazalea: Jose Etxeberria

Akolito fina: Aitor Zaldua

Pailazoak: Montxo eta Kontxo:  
Ainara Zumarraga, Aizpea Lasa

Apaintzaileak: Kizki eta Izaskun  
ahizpak

Argiak: Narraspe

Zuzendari jefea: Ximon Idiakez



Martxoaren 8an (larunbata),  
arratsaldeko 7etan, Santa Lutzian

# Historia

## SANTA LITZIako FERIA

Gipuzkoako feria garrantzitsuak zazpi ziren antzina, eta Larraitzeko zelaietan, Aian, Arrasaten, Azpeitian, Elosun, Liernin eta Ezkioko Santa Lutzia auzoan egiten omen ziren. Feria horiek zelai edo eremuetan egiten ziren, baina 1727an Gipuzkoako Biltzar Nagusiek herri edo hirigunee-tara eraman zituzten, «gertatzen zena gertatzen zelako». Anduaga bailarako feriak badirudi bertan jarraitu zuela orduan, nahiz eta gero Urretxuk eta Zumarragak berengana-tatu zuten.

Antxon Agirrereren arabera, jende asko etortzen zen «gure» Santa Lutzia eta ezin ziren denak barrura sartu. Orduan, kanpoan mahaitxo bat ipintzen zuten kaxoi batekin (barruan irudia zuela) eta betaurrekoekin; jendeak betaurreko horiek jantzi eta santari errezatzen zion, gero muin eman, limosna utzi eta joan egiten zen.

### Mandubiko Benta



Tel. 943 88 26 73  
MANDUBIA

### ITSASOko OSTATUA

Tfno.: 943 88 03 15  
ITSASO



### Ezkioko Ostata

Espezialitatea:  
ARKUME ERREA

Tel. 943 72 02 67  
EZKIO



### LABEKOA j a t e t x e a

Santa Luzia auzoa - Ezkio-Itsaso  
Tel. 943 72 25 52

### ERRETEGIa AGIRRE ETXEA SAGARDOTEGIa

St. Luzia auzoa, 50  
Tfnoa 943 72 59 87  
EZKIO ITSASO



## LEHIAKETA

Aurrekoa: Zenbatgarren postua lortu du aurten Maitane Anduezak Munduko Trialsin Txapelketan? Ondo erantzun duzuen guztion artean zozketa egin, eta oraingoan zori ona Goetxeko Joxepa Korta-rentzat izan da. Bejondeiola! Eta jakin beza, bi afari dituela zain Mandubiako Bentan. On degizuela!

Hurrengoa: Aizu, zer iruditzen zaizu herrian bertan ume txikientzako eskola ipintzea? Oraingoan kontua ez da zuzen ala oker erantzutea, baizik eta nor bere iritzia ematea, eta iritzia ematen duzuen guztion artean, ohi bezala, bi afariren zozketa egingo dugu, oraingoan Ezkioko ostatuan afaltzeko. Hilabeteko epea duzue erantzuna azpiko txartelean idatzi eta Santa Lutzia Zaharreko gure gutun-ontzian uzteko. Aurrera!

Erantzuna:

---



---

(Neure) izen-deiturak: .....

Helbidea: .....

Tel. ....

# ARGAZKI ZAHARRA



**Ezkerretik eskuinera:** M<sup>e</sup> Jesus Txinturreta, Higini Zumarraga, Juanita Zumarraga (Sagastizabalgoa), Milagros Txinturreta (Urkiolakoa), M<sup>e</sup> Dolores eta M<sup>e</sup> Azpiazu (biak Mirandakoak).

Argazkia 1957ko martxoaren 19koa da, eta Sagastizabalgo sukaldean egindakoa. Izan ere, Inaxio Zumarraga pasiotarrak bere lehen meza edo meza berria eman zuen Santa Lutzian eta gero ospakizun-jatordua egin zuten etxean.



- HIDROEREINTZAK
- LANDAKETAK
- INGURUGIRO-BERRESKURATZEAK
- MANTENIMENDUAK
- MINTEGIAK, ETAB.

ALTZIBAR BASERRIA Z/G

☎ 943 16 04 24

Fax: 943 16 04 24

Alegi auzoa

20217 GABIRIA

(GIPUZKOA)

**ITSASO**  
apaindegia

Ileapaindegia, estetika, masajeak

San Andres, 31  
☎ 943 88 06 24  
ORMAIZTEGI

